

B

BARREN

TOKIKOM



Entzun, ikusi eta ikasi

Musika elektronikoari buruzko jardunaldiak

TXANKAKUAN erosi eta sariak lortuko dituzu
ZURE EROSKETETAN SARIAK



OSASUN GIDA



OPTIKAK

65\07

IKUS OPTIKO-OPTOMETRISTA

Egunero:
9:30-13:00
16:30-20:00

San Bartolome, 10- Elgoibar
Tel: 943 743 734

183\12

UZURI

- Optometria
- Kontaktologia

Egunero:
9:30-13:00 / 16:30-20:00
San Frantzisko, 21

Elgoibar - Tel: 943 740 359

HORTZ KLINIKAK

171\12

LEKU EDER

- Diagnostiko digitala
- Estetika
- Kirurgia eta inplanteak
- Ortodontzia: haurrak eta helduak
- Protesiak: finkoak eta eraginak
- Odontologia orokorra
- Higienea eta prebentzioa
- Periodontzia (entzien tratamendua)
- Haurrentzako tratamenduak
- PADI

Elena Herrero Lobo
Aita Agirre enparantza,
5 behea - Elgoibar
Tel: 943 530 053
lekueder@infomed.es

OTORRINOLARINGOLOGIA

183\12

UZURI

- Entzumen protesia
- BERRIAI**
- Tapoiak neurriak (uretarako tapoiak, zaraten kontrakoak...)
- Audiometriak
- Audifonoak
- Tonometria

Egunero:
9:30-13:00/ 16:30-20:00

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel: 943 740 359

FISIOTERAPIA

271\12

AINHOA FISIOTERAPIA ZENTRUA

- Fisioterapia eta osteopatia
- Eskuterapiak
- Drenatzaile linfatikoa (Vodder metodoa)
- Taping neuromuskularra

Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 531 953
Tel.: 669 565 745

177\12
fisio&más

Fisioterapia aurreratua eta kirol berregokitzea

- Esku-terapia.
- E.P.I @ (Tendinitis tratamendua, zuntz-haustura)
- Esku Drainatze linfatikoa (DLM).

- Mesoterapia homeopati-koa:
- + Traumatologia.
- + Estetika (zelulitisa, es-triak)

Osasunerako ariketa agin-dua
(Diabetes, osteoporosis, hipertensio arteriala)

Entrenamendu gidatua

Pilates makinak
(errehabilitazioa)
3 pertsona gehien.

Txirindulariaren biomekani-ka (kalak, ergonomia bizikle-tan eta lesioen prebentzioa)

Trenbide kalea 13, behea.
Tel.: 943 740 191
667 953 628



Ander Izagirre

Gure lehenengo idatzian aipatzen genituen komunikabideetako berri txarren artean, bada bat, zure lan munduarekin zerikusi handia duena, Inma. *Fracking*-ari buruz ari naiz, bai.



Inma Mugertza

Bai, arrazoi duzu, Ander. 2011ko urrian Patxi Lopezek Arabako lurpean dauden gasbaliabideen berri eman zuen aho handiz, begietan dolarraren ikurra disdiratsu zuelarik; gas natural ez konbentzionaleko 184.500 milioi metro kubiko: 60 aldiz Euskadiren urteko gas-kontsumoa omen... sekulako altxorra!!! Hauxe izan zen hain zuzen ere Gran Enara proiektuaren abiapuntua.

Egunetik egunera, *fracking*-aren inguruan gero eta berri gehiago entzuten ditugu. Posible da elgoibartar askorentzat ezezaguna izatea, baina datorkigunaz jabetu behar garelakoan nago.

Izen hau entzun ez duzenontzat, lurrazpiko harkaitzen zulo mikroskopioetan pilaturiko gasa ateratzeko teknika bat da *fracking*-a. Hori lortzeko presiopeko ura eta hainbat produktu kimiko sartzen dituzte lurrazpian, ondorio kaltegarriak sortuz (dagoeneko hamaika tokitan ikusi direnak). Ezin denak aipatzen hasi, baina zu parean izanda, Inma, bada ezinbestean aipatu beharreko bat: akuiferoak kutsatzeko arriskua. Diotenez, teknika honen erabileraren ondorioz, akuiferoak kutsatzeko arrisku larria dago, eta hori gertatuz gero, gure osasuna ere arriskuan egongo litzateke, noski!

Hala ere, balizko altxor ekonomiko hori bakan batzuen eskuetara soilik helduko litzatekeela alde batetara utzita, Patxi ez zuen ezer aipatu gerta zitezkeen ondorio kaltegarri buruz. Izan ere, aipatzen dituzun hainbat produktu kimiko horietako gehienak kaltegarriak dira, eta ez da berreskuratzen akuiferoak kutsatuz, horrek dakarren guztiarekin: ura ezin edan, lur-sailak ezin ureztatu, lurrazaleko uraren kutsadura, ekosistemen usteltzea...

“‘Fracking’ teknikaren ondorioz, akuiferoak kutsatzeko arrisku larria dago”

Fracking-aren ondorio kaltegarriak ikusita, dagokiguna baino gutxiago barneratua dugulakoan nago, eta ezin esan gertuko kontu bat ez denik. Badira urte batzuk Araban teknika hau erabiltzeko nahia dagoela jakin zela eta horren adibide dira, uda aurretik Gorbeian gas bila ibili ziren makinak. Bestalde, hainbat herrialdek debekatu dute dagoeneko teknika hau eta beste hainbat hasiak dira debekatzeko aukera mahai gainean jartzen.

Lurrazpiko urak kutsatzeko arrisku hori dagoen partetik, imajinatzen dut zu bereziki kezkatzen zaituen kontua izango dela, Inma. Eta seguru nago asko izango duzula esateko. Agian gehiegi horrelako testu motz batean azaltzeko... Zer diozu?

“Gipuzkoan teknika hori erabiltzeko bi eskaera eginda daude 2011tik”

Haustura hidraulikoa zer den eta zer suposatzen duen ezagutzearekin bat, herritarren erantzuna garatzen joan da. Araban, adibidez, *Fracking* ez Araba (<http://frackingezaraba.org/eu/>) plataforma sortu zuten, Gran Enara proiektu ia osoa Araban kokatzen da eta. Edoze-lan ere, jakin ezazue gure herria ez dagoela guzti honetaz salbu. Euskal Herriko kontzesio-maparen arabera (http://frackingezaraba.org/wp-content/uploads/2013/06/mapa_per-misos_EH_20130619.pdf) Gipuzkoan bi eskaera eginda daude 2011atik, eta hoietako batek (Sustrai) Elgoibar barneratzen du.

Ai Ander! Hainbat herrialdek (Frantzia, Bulgaria, Irlanda...) teknika hau debekatu badute ere, gu atzetik, besteek aurretik egindako akatsak errepikatzeko zorian... inozoak! Aukera izatekotan ez utzi ikusi gabe *Gasland* dokumentala (<http://vimeo.com/38843993>). Hori, bai, altxorra!



Eskerrik asko Elgoibarko Izarraren txosnara etortzeagatik!

ELGOIBARKO IZARRA 50 KULTUR ELKARTEA

Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 744 112 - Faxe: ☎ 943 743 704
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitatea: ☎ 943 743 704
E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA**, **ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia
PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue
KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarrugarte, Mikel Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:

ELGOIBARKO IZARRA 50
KULTUR ELKARTEA

Laguntzaileak:



ELGOIBARKO UDALEA

elgoibar
bizi bizia



MUNDARNO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



ELISKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Lau urte preso

Datorren hilaren 13an lau urte beteko ditu Arnaldo Otegi espainiar estatuaregatik bahituta. Bidegabeko egoera hori berriz ere salatzeke eta bere askatasuna aldarrikatzeko, Arnaldo Askatu herri ekimenak manifestaldia antolatu du urriaren 12rako (larunbata). Plaza handitik (Kalegoen plaza) abiatuko da, 13:00etan. Idatzi honen bitartez deia luzatzen dizuegu herritarroi gurekin batu zaitezten ekimen honetara.

Arnaldo Astakatu! Politika Askatu! ☞

Herrira Aurrera. Itsasoa gara

Aste hau ez genuen aldarte onenean hasi, egia da. Euskal presoek eskubideen alde lanean dihardugunok ezin genuen sinistu, eskuz esku jardundako kideak horrela atxilo hartu eta gaizkile gisa tratatzea. Jakin bada-kigu, ondo gainera, estatua presoek gain tematu dela gatazkaren konponbidean urratsik ez emateko eta orain beste urrats bat, beste jauzi bat, eman du erruleta anker honetan hemezortzi kide atxilo eramanda. Itsasoa gara, tanta gara, eta tantak malko bilakatu zitzaizkigun astelehenean.

Guretzat begibistakoa da bidegabekeria honek helburu politiko bat, edo hainbat, dituela. Lehena, euskal preso politikoen eskubideen defentsa kriminalizatzea. Noiz, eta argitaratzekotan denean espainiar estatuak presoekiko ezarri duen zigoren luzapen krudelari buruzko epaia. Kriminalizazioa eta lan politikoa eragozte da xedea, Euskal Herria eta bizi duen gatazka, ataka antirrepresiboan kateatuta gera dadin eta bere garapena galarrazte aldera. Horixe da estatuaren *immobilismo* delakoaren helburua. Bestalde, makrooperazio honen keaz estali nahi dituzte kontu ezineko arazoak, esaterako, bi besterik ez aipatzearen, ustelkeria kasuak edota erabakitzeko eskubidearen aldeko errebindikazio nazionalak gori-gori egotea.

Jendarteak eta eragile politiko, sindikal zein sozial desberdinek aste honetan erakutsitako jarrerak, ordea, aldatu du gure aldartea. Horregatik, sinetsita gaude erantzun zabal eta irmoa bultzatu behar dugula bidegabeko operazio honen aurka. Ostiralean arra-

tsaldeko 19:30ean plazan bilduko gara malkoak berriz tanta bilakatu eta itsasoa osatzen jarraitzeko. Larunbatean, Urriak 5, 17:30ean, Bilbon La Casillatik hasita burutuko den manifestazio nazionalera joateko deia ere luzatu nahi dizuegu. Autobusez joateko aukera izango da. Itsasoa gara.

Herrira Elgoibar ☞

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatuak...
6. Ez dugu gaztelaraz datorren eskutitzik argitaratuko.



King-Kong autobus geltokia zikinkeriaz beteta egoten da: "Asteburuetan zikinkeriaz beteta uzten dute King-Kong autobus geltoki ingurua. Autobusaren zain dauden bitartean, denetariko zikinkeria botatzen du jendeak lurrera, eta domeka goizetan nazkagarri egoten da zonalde hori. Zakarrontziak jartzea izan daiteke irtenbide bat, baina jendeari eskatuko nioke zaborra lurrera ez botatzea".



**Ikastolatik behera jaisterakoan, zergatik ezin da ezkererantz hartu? Bide zabala da, eta ikusmen arazorik ere ez dago. Ez dugu ulertzen zergatik hartu behar den derrigorrean Maala alde-
rantz.** Ricardo Garate Hirigintza arduradunarekin jarri da harremanetan BARREN, eta berak esandakoaren arabera, bide hori bi norantzakoa zenean hartu zuten erabakia: "Ikastolako sarrera-irteera orduetan auto ilara handiak sortzen ziren, eta ezkerrean hartzeak egoera are eta zailagoa egiten zuen. Maalako errotondara joatea erosoagoa eta seguruagoa zela iruditu zitzaigun".



Txakurrak solte eramaten ditu jende askok herri barruan. Maltzagarako bidegorrian txakur denak solte joaten dira, eta askotan gerturaten dira oinezkoengana. Zertan da txakurrak lotuta eramane behar zirela dioen ordenantza? Udaleko arduradunekin jarri gara harremanetan, eta Ricardo Garatek esandakoaren arabera, txakurrak lotuta eramane behar dira herri barruan: "Udalak onartu zuen ordenantzaren arabera, txakur jabeek lotuta eramane behar dituzte txakurrak. Bidegorrian argi eta garbi jartzen du txakurrak ezin direla solte eramane, eta txakur-jabeek badakite isunak jasoko dituztela ordenantza betetzen ez badute. Dagoeneko jarri ditugu isun bat baino gehiago".



San Frantzisko iturria berritu dute: "Zezenak San Frantzisko kaleko iturria hondatu zuen sanbartolomeetan, eta iturri berria jarri dute. Oso ondo geratu da".



Txalo bat Herri Eskolako Kalamua guraso elkarteari: "Ikasturteari hasiera emateko Kalamuara mendi irteera antolatu zuen Herri Eskolako Kalamua Guraso Elkarteak. Familia askok hartu zuten parte, eta primeran pasa genuen guztiok elkarrekin! Naturaz gozatu genuen nagusiok eta etxeko txikiek! Hurrengo batean ere animatuko gara! Segi horrela!"



‘Dendak bizirik’ eta stock feria antolatu ditu Txankakua merkatarik elkartek astebururako

Herriko merkataritza sustatzea izango da helburua

Herriko merkataritza sustatzeko asmoz, Dendak Bizirik egitasmoa eta stock feria antolatu ditu Txankakua merkatarik elkartek astebururako. Gaur arratsaldean hasiko dira ekitaldiak. 17:00etatik 18:00etara bitartean jolas txiki bat egingo dute dendetan. Erakusleihen hainbat objektu jarriko dituzte, eta Txankakuaren logoa duen objektua aurkitzen duenak ehun euroko erosketa txeketa baten zozketan sartuko da. Umeentzako kale antzerkia ere egingo da, eta horrez gain, Txankakuaren dendetan %10eko deskontua egingo dute erosketetan.

Bihar, bestalde, stock feria egingo dute Lekuederren. 10:30etik 14:00ak arte, euren produktuak jarriko dituzte salgai hamasei dendarik. 14:00etan, bestalde, 600 euro zozketatuko dituzte erosketa txeketan. Saria jasotzeko unean bertan Lekuederren egon beharko du irabazleak.



Gazteen aisialdi ohiturak ikertzeko bigarren tailerra, urriaren 9an

Gazteen aisialdi ohiturak aztertzeko jarri zuen martxan Udalak Gaztemapping egitasmoa, Manahmana enpresaren laguntzarekin, eta dagoeneko hasi dituzte behaketa lanak. 13 eta 30 urte bitarteko gazteen ohiturak aztertuko dituzte, eta gazteak eurak izango dira ikertzaileak eta ikertuak. Ikertzaileak izango diren gazte horien formakuntza lanetan dihardute orain. Irailaren 26an egin zuten lehen saioa, eta bigarrena urriaren 9an egingo dute, datorren eguaztenean. 18:00etan izango da, IMHn. Gazteak deitu dituzt parte hartzera, izan ere, ikerketa honetatik aterako dituztelako haien aisialdian hobekuntzak egiteko ondorioak. Interesatuak Gaztemapping-ek Facebooken sortu duen ekitaldian eman dezakete izena.

Bihar hasiko dituzte Sargoateko iturria berritzeko lanak



2009ko argazkia.

Interes berezia duten mendi inguruak auzolanean berritzeko proiektua jarri du martxan Morkaiko mendizale elkarteak. Lehenengo lana Sargoateko iturri ingurua berritzea izango da, eta bihar egingo diote lanari. 8:00etan batuko dira IMHko tenis pistari. Hamaiketako eramango dute arduradunek, eta 15:00ak aldera bazkaria egingo dute Otsourtian. Erropa luzea eramatea komeni da. Interesatuak 636 994 798 (Aitzol Arriola) telefonora deitu dezakete.

Hilda aurkitu dute Gerald Morisset medikua

Gerald Morisset sendagilea hilik aurkitu zuten joan zen barixakuan bere etxean. San Frantzisko kalean bizi zen. Bizilagunek haren falta igarri zuten, eta etxetik oso usain txarra irteten zela ohartu ziren. Atea jo zuten, baina inork ez zuela zabalitzen ikusita, Udaltzaingora jo zuten bizilagunek. Azkenean suhiltzaileei dietu eta haiek sartu ziren etxe barrura. Sendagilearen gorpua aurkitu zuten han.

30 urte baino gehiago egin ditu Morissetek Elgoibarren. Haitiarra zen jaiotzez. Valladolid-en egin zituen medikuntza ikasketak, eta Palentzia eta Asturiasen jardun zuen lanean, 80ko hamarkadan Elgoibarrera iritsi zen arte. Jubilatua ostean Elgoibarren jarraitu zuen bizitzen. 80 urte zituela hil zen.

Istripua **Idi-pare batek gizon bat harrapatu du**

Amaiera tristea izan dute San Migel jaiek Aiastian. Idi-demetan parte hartzen ari zen idi-pare batek azpian harrapatu zuen ikusleen artean zegoen adineko gizonazko elgoibartar bat, eta larri dago idiek eta harriak eragindako zaurien ondorioz. Jai giroan joan zen eguna, harik eta jaietako azken ekintzan, arratsaldean egin zituzten idi-demetan, eguna beltzez tindatu zen arte. Lehen idi-pareak lana bukatu zuenean gertatu zen ezbeharra. Animaliak izutu egin ziren harria lagatzera zihoazen uenea, eta ihesari eman zioten, harri eta guzti, iltzainek ez zutelako astirik izan harria askatzeko. Ikusleak zeuden eremuan sartu zen idi-parea, eta 70 bat urteko gizonazko elgoibartarra kolpatu eta zapaldu zuten. Idiek apatxekin zapaldu zuten gizonazkoa, eta arrastaka eraman zuten zenbait metroetan. Mendaroko ospitalera eraman zuten zauritua, eta handik Donostiako ospitalera aldatu zuten. Juanjo Galdos Aiastiako alkateak esandakoaren arabera, gizona larri dago.

Izena **Arnaldo Otegi**

Urriaren 13an lau urte egingo ditu preso Arnaldo Otegi. "Bidegabekeria" hori salatzeko eta Otegiaren askatasuna eskatzeko, Arnaldo Askatu herri plataformak manifestaziora deitu ditu herritarrak urriaren 12rako. 13:00tan irtengo da manifestazioa, Kalegoen plazatik. Plataformako kideek herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte ekitaldian parte hartzera.



Argazkia **Herrira**



Guardia Zibilak Herrira mugimenduaren aurkako operazioa burutu du aste honetan Bilbon, Iruñean, Gasteizen eta Hernanin, Eloy Velasco epailearen aginduz. Hemezortzi lagun atxilotu dituzte eta Herrira-ren egoitzak ixteko agindua eman du epaileak. Egoera hori salatzeko kontzentrazioa egin zuten astelehenean eta elkarretaratzera deitu dute gaurko Mendaron, *Herrira Aurrera! Eskubide eta askatasunen defentsan* lelopean (19:00etan Mendarozabaleko plazan). Bihar, bestalde, manifestazioa egingo dute Bilbon. Elgoibartik autobusez joateko aukera egongo da.

Bigarren eskuko bizikleten azoka urriaren 19an

Mugikortasun astearen barruan, bigarren eskuko bizikleten azoka antolatuta du Udalak urriaren 19rako. Bizikletak saltzeko edo trukatzeko aukera izango dute herritarrek, baina horretarako izena eman behar da, urriaren 11rako. 943 741 050 telefonora deituta edo miriam@elgoibar.net helbidera idatzita. Urriaren 15etik 19ra bitartean salgaien zerrenda www.elgoibar.org webgunean jarriko dute ikusgai.

Atxutxiamaikaren argazki erakusketa, sotoan

Udako txokoetan ateratako argazkien erakusketa jarri dute ikusgai Atxutxiamaikako arduradunek Kultur Etxeko sotoan. Atzo ireki zuten erakusketa, eta domekara arte egongo da zabalik. Gaur, 18:00etatik 20:00etara, bihar 11:30etik 13:30era eta 18:00etatik 20:00etara, eta domekan 11:30etik 13:30era eta 17:00tik 19:00etara.

Japoniako euskara irakaslea Institutuan

Hiromi Yoshida Tokioko unibertsitateko euskara irakaslea Elgoibarko Institutuan izan da, DBHko ikasleekin solasean. Yoshida Tokion ikasle zela zaletu zen euskararekin eta orduak aurrera lan handia egin du esparru honetan. 22 urte inguru daramatza Euskal Herrira etortzen bere hizkuntza maila hobetzera eta lagunak bisitatuz. Bere hitzetan, euskarak di-tuen berezitasunak direla eta, edozein linguistarentzat da ezaguna eta erakargarria gure hizkuntza.



EUSKALDUNTASUNA GOGOETA-GAI

'Atzera begira, aurrera egiteko. Euskaldunon iraganaz eta etorkizunaz' izenburuko hitzaldi zikloa antolatu dute Elgoibarko Izarra kultur elkarteak eta Udalak elkarlanean. 2009tik, Elgoibarko kultur agendan leku berezia izan du urriko programazio honek. Gotzon Garate euskaltzale eta idazlearen omenez egin zen aurrenekoa, bera hil eta urtebetera. Orduetik formatu ezberdinak hartu ditu, baina antolatzaileen esanetan, helburuak hasierako berbera izaten jarraitzen du: elgoibartarren artean euskalduntasuna sustatzea. Aurten, euskal kulturagintzan itzal handia duten lagunak gonbidatu dituzte: Eñaut Elorrieta eta Mikel Markez musikariak, Kike Amonarriz soziolinguista, Lorea Agirre kazetari eta antropologoa eta Unai Iturriaga bertsolari eta idazlea. Zikloaren izenburuak dioten moduan, euskaldunon iraganaz eta etorkizunaz ariko dira guztiak.

Ainara Argoitia

Urriak 9, eguaztena.
Baga, biga, higa hitzaldi-kontzertua,
 Musika Eskolako auditorioan, 19:00etan.

Eñaut Elorrieta eta Mikel Markez



Eguaztenean, urriaren 9an, hasiko da zikloa, Eñaut Elorrieta (Gernika, 1975) eta Mikel Markez (Errenteria, 1971) musikarien *Baga, biga, higa* multimedia formatuko hitzaldi-kontzertuarekin.

Euskarazko musikaren transmisioa eta sustapena helburu dituen proiektua da *Baga, biga, higa*; euskal musikagintzaren historia, erreferenteak eta zaletasuna sustatzeko proiektua. Helburua garbia da: hurrengo belaunaldiei euskal musikagintza sakonago ezagutzeko, "maitatzeko" eta bizitzeko bitartekoak eskaintzea.

Proiektu honen sustatzaileek esana da teknologia berriek, informazio eta aukera gain-dosiak markatutako globalizazio garai honetan herri txikiak esfortzu bikoitza egin behar dutela euren kultur eskaintza erakargarriago egiteko eta zabaltzeko. Hau da, euskal kulturagintzako erreferenteak eta ereduak indartzeko ahalegin handiagoa egitera behartuta daudela gurea moduko herri txikiak,

eta musikak eta kantuek duten garrantziaz ohartuta, euren alea musikagintzan jarri nahi dute Eñaut Elorrieta eta Mikel Markezek.

Hitza eta kantua erabiliko dituzte horretarako. Euskal musikagintzaren mundua barrenetik ezagutzen dute biek ala biek, eta hitzez eta kantuz islatuko dituzte iraganeko (baga), oraingo (biga) eta etorkizunerako (higa) erronkak eta aukerak. Hala, euskal musikaren historiaren errepasoa egingo dute, euren begiradatik, jakina. 60ko hamarkadaren aurreko garaietatik gaur egunera arteko historia aztertuko dute. *Baga, biga, higa* egitasmoaren aurkezpen orrian jaso dutenez, bost ataletan banatuko dute euskal musikaren historia: 60ko hamarkadara artekoa, 60ko eta 70eko hamarkadak, 80ko hamarkada, 90eko hamarkada eta 2000. urtetik gaur egunera artekoa.

Hamarkadaren arteko lotura musika euskarri ezberdinak erabiliz egingo dute. Euren esanetan, garai bakoitzean erabili diren euskarriek informazio asko ematen dute aro bakoitzari buruz. Horregatik, euskarriak gabeko garaietatik hasi eta disko biniloen aroa (60-70eko hamarkadak), casetten aroa (80ko hamarkada), CDen aroa (90eko hamarkada) eta MP3-en aroa edo euskarriak gabeko aro modernoak jorratuko dituzte.

Urriak 16, eguaztena.
XXI. mendeko euskaldunak: nola aldatu(ko) diren gauzak, kamarada! Kultur Etxeko hitzaldi-gelan, 19:00etan

Kike Amonarriz



**XXI. mendeko euskaldun-
nez ariko da Kike Amonarriz
(Tolosa, Gipuzkoa, 1961) El-
goibarren. Hitzaldiaren non-
dik norakoez galdetu dio
BARRENEK, eta hauxe berak
idatziz bidalitako aurrerape-
na.**

Aspaldikoak dira Elgoi-
barko euskalgintzarekin ditudan harremanak. Gogoan dut, Elgoi-
barko Izarra Elkarte, Euskara Elkarte bihurtu zeneko prozesua
90ean. Tolosako Udal Euskara Zerbitzuan eta Galtzaundi Euskara
Taldean nenbilen garai hartan eta interes handiz jarraitu genuen
bilakaera hura. Elkarte dinamikoa eta egituraz zabala eta indar-
tsua izan da beti Izarra eta 'izar' hori eredu egokia izan da -eta da-
guretzat aspektu askotan. Handik gutxira, eta jada, SIADECOKo
partaide gisa, Elgoibarko Azterketa Soziolinguistikoan hartu nuen
parte. Euskara Batzordearen eskariz 1992-93an egindako lan ha-
ri esker herriko egoera soziolinguistikoa, eta bertako eragile nagu-
siak ezagutzeko aukera izan nuen. Zenbat aldatu ote da euskara-
ren egoera Elgoibarren 20 urteotan?.

Gustura hurbilduko naiz, beraz, atzera, Elgoibarrera, urriaren
16an **XXI. mendeko euskaldunak: nola aldatu(ko) diren gauzak,
kamarada!** hitzaldia Elgoibarko Izarrako adiskideekin eta bertako
euskaltzale guztiekin konpartizera.

Esango nuke denok garelako kontziente bidegurutzet batean
gaudena. Batetik, Euskal Herria fase sozio-politiko berri batean
dago eta krisi ekonomikoa gogor ari zaigu astintzen. Baina beste-
tik, mundu mailan gertatzen ari diren fenomenoek eragin zuzena
dute gure eguneroko bizimoduan: globalizazioak eta iraultza tek-
nologikoak (telefonía, Internet, sare sozialak...) gure eguneroko
bizitza eta harremanak bideratzeko moduak aldatu dizkigute, ba-
lio aldagetak (hizkuntzenak barne) sakonak dira gure gizartean,
emigrazio berriek aniztasuna ekarri dute gure kaleetara, ingeles-
aren presentzia gero eta handiagoa da gure artean...

Gure hizkuntza komunitateak, bestalde, sakoneko aldaketak
bizi izan ditu XX. mendearen erdialdetik aurrera. Lehenengo aldiz
gure historian euskara batu bat dugu eta zatiketa dialektala gain-
ditu da, euskarak onarpen legala irabazi du (erabatekoa ez bada
ere), haur eta gazte gehienak euskaraz eskolatzen dira... Lehe-
nengo aldiz gure historian (eta esango nuke Europan), hizkuntza
minorizatu bateko hiztun gazte gehienak familia erdaldunetan sor-
tuak dira. Honen guztiaren ondorioz, sakonki aldatu dira euskal-
dunon ezaugarri sozio-demografikoak, darabilgun euskara eta
baita euskararen erabileraren inguruko parametro asko ere.

Hamarkada hauetan, gainera, euskararen aldeko mugimendu

sozial indartsua eratu da, hizkuntzaren aldeko kontzientzia kolek-
tibo indartuz. Euskara, inoiz erabili gabeko edo apenas erabilia-
ko eremutan erabiltzen hasi da. Hitz bitan, euskarak hedapen de-
mografiko, funtzional eta geografikoa ezagutu du.

Ez da txantxetako egin dugun bidea, baina are gutxiago egi-
teke duguna. Aurki honek bai baitu bere ifrentzua. Izan ere, hobe-
kuntza horiekin batera oso agerian geratu dira hedapen horren
ahuleziak maila guztietan. Aurreratu dugu, baina ez nahi adina,
aurrerapausoak eman ditugu, baina oztopo handiak ditugu alor
askotan hizkuntza normalizatorako bidean. Azken hamarkada
honetan eta zenbait alorretan, bestalde, geldialdia erakusten du-
ten datuak agertu dira; Elgoibarko bertako kale-erabileraren da-
tuak, esate baterako.

Ondorioz, oso egoera soziolinguistiko desberdinak sortu dira
Euskal Herrian, eta egoera konplexu honen isla eta ondorio gisa,
haur eta gazteen tipologia soziolinguistikoak ugaldtu dira.

Hitzaldia, egoera anitz eta konplexu honen inguruko hausnar-
ketarako gonbitea izango da.

Urriak 23, eguaztena.
'Atzera begira, aurrera egiteko' solasaldia.
Kultur Etxeko hitzaldi-gelan, 19:00etan.

Lorea Agirre eta Unai Iturriaga



*Atzera begira, aurrera
egiteko solasaldian, euska-
raren normalizazioaren alde
orain arte izan eta egin du-
guna baloratu eta egiteko
daukaguna irudikatuko dute
Lorea Agirre idazle eta an-
tropologoak (Beasain, 1968)
eta Unai Iturriaga bertsolari*

eta idazleak (Durango, 1974), urriaren 23an. Iturriagak jarritako
puntu edo galderei erantzungo die Agirrek, eta beraz, zaila da hi-
tzaldiaren nondik norakoak aurreratzea, baina Loreak han eta he-
men eman dituen hitzaldietan eta idatzitako artikuluetan landu di-
tuen kontzeptu eta gogoetak ekarriko dituzte gurera ere, modu
batera edo bestera: hizkuntza ekologia, euskaldun izatearen kon-
tzientzia, justizia soziala, minorizazioaren ajeak, euskararen nor-
malizazioa ala bizirautea, identitatea, nor izatea... Euskara nor-
maltzeko edo gutxienez euskararen gune hegemoniko berriak
sortzeko aukerez eta erronkez mintzatuko dira.

Salsoteka antolatu dute astebururako Elgoibarren, dantza latinoen eta afrikarren jaialdia

Ehundik gora dantzarik eman dute jaialdirako izena dagoeneko



Elgoibarren astero dantzarako batzen den lagun taldea.

Vacuna Salsa Weekend jarri diote izena astebururako Elgoibarren antolatu duten dantza latinoen eta afrikarren jaialdiari. “*Vacuna* gure saltsa jaialdiari bizia ematen dion berba edo kontzeptua da”, jaso dute jaialdia iragartzeko sortu duten webgunean. 1886an sortutako kontzeptua da berez *vacuna*, esklabotzaren abolizioaren ostean sortutakoa. Izate beltza du hortaz berba horrek. Halaxe azaldu du Karmel Leonek, asteburuko jaialdiaren sustatzaile nagusiak: “Guaguango hizkuntzako hitza da, eta perkusioaren erritmora dantzari gizonezkoek emakumezkoak limurtzeko egin ohi zituzten dantza bero eta erotikoei egiten die erreferentzia. Emakumea limurtzea lortzen duen momentua izendatzeko erabiltzen da *vacunar* berba, zehazki”. Jolasa, dantza eta dibertsioa. Horra Vacuna Salsa Weekend jaialdiaren hiru osagai nagusiak, Leonen esanetan.

Asteburu osoko jaialdia izango da Elgoibar Ikastolan egingo dutena, eta dagoeneko Euskal Herri osoko ehundik gora dantzarik eman dute izena. Ez da kosta gabeko kontua izan. Hemengo eta hango hamaika jaialdi bisitatu eta gogotik egin behar izan du dantza Karmel Leonek Euskal Herriko dantzari onenak Elgoibarrera ekartzeko, baina damurik ezin du izan, osatu duten kartela ikusita. Euskal Herrian era honetako hiru jaialdi egiten dira: Gasteizen, Bermeon eta Barakaldoko BECen, baina Gipuzkoan aurreko aldia da maila honetako zerbait antolatzen dutela.

Salsa, bachata, kizomba eta zouk dantza estiloetan itzal handikoak diren dantzariak etorriko dira, eta Elgoibarren bertan eta inguruetan dantza ikasten dihardutenek ere izango dute dantzan sakontzeko eta ikasitakoa praktikan jartzeko aukera. Elgoibarren, ostegunero batzen dira 40 bat lagun Gabaz tabernan, dantzan egiteko, eta haiek ere gonbidatuta daudela gogorarazi du Leo-

nek. “Beti kanpora joan behar izaten nintzen dantzara eta inguruan zaletasuna bazutenak bazirenez, komentatu egin nien. 20 bat lagun hasi ginen batzen, eta aurten, ekainean, 40 bat ginen. Adin guztietako jendea elkartzen gara, dantzan egiteko”, esan du horren harira. Dantzaren inguruan uste oker asko daudela ere bota du. “Dantza hauek dantza beroak dira, eta horregatik, beharbada, askok uste dute dantza latinoak gustuko dituztenak beste zerbaiten bila joaten garela dantzara; baina ez, dantza gustuko dugulako elkartzen gara”. Euskaldunok dantzarako hotzegiak ez ote garen galdetuta, ez du zalantzarik egin: “Bai, euskalduna berrira fijo dantzaria da. Barra ondoan jarri, beso bat barran duela eta bestea edalontziari heltzeko duela, eta hantxe, geldi! Alkohola behar izaten du jendeak lotsak galtzeko, baina dantzan egin nahi duenak zaindu beharra dauka”. Alkohola ez da lagun ona; ezta dantzarako ere.

Tailerrak eta dantza-saioak

Gaur hasiko da Vacuna Salsa jaialdia, 22:00etan. Lemoako Jorge eta Deiene dantzariak bachata ikastaroa emango dute, eta ondoren, Bilbao Argentinako Aitor Esquinas eta Julieta Arroyok zouk tailerra eskakiniko dute. Ikastaroen ostean, 00:30ean, DJa egongo da, eta aurrez ikastaroak eman dituzten dantzariak dantza erakustaldi bana emango dute gero.

Zapaturako eta domekarako egun osoko egitaraua antolatu dute. Interesatuak <http://vacunasalsaweekend.wordpress.com/talleres> webgunean duten informazio osoa. Egitaraua, eta izenematearen inguruko informazio guztia batu dute hor.



Erretratu zaharra



1924

Aste honetako erretratu zaharrak Antonio Arrillagak ekarri ditu BARRENERA, bere aitaren argazki albumetik aterata. 1950. urte ingurukoak dira, eta Errosario kaleko jaietan aterata daude. Aste honetan ospatuko dituzte Errosario kaleko jaiak, eta une egokia iruditu zaigu argazki hauek argitaratzeko. Ikusten den bezala, garai hartan festa handiak egiten ziren Errosario kalean.



ERRETRATU ZAHARRAK BEHAR DITUGU!

BARRENEan argitaratzeko erretratu zaharrak baldin badituzu, eskertuko genizuke gure erredakziora ekartzea. Nafarroa Plaza 2, behea. 943 744 112 (Ainhoa)



MUSIKA ELEKTRONIKOA PLAZARA

Teknologiaren garapenak aurrerapausoak ekarri ditu han eta hemen. Bizitza erraztu duela diote batzuek, onerako izan dela uste dute askok, eta kalterako izan dela diote beste batzuek. Dena dela, teknologiaren garapenak aldaketak ekarri ditu alor guztietan, eta musikagintzan ere eragina izan dute. Khris Rios eta B. Gutierrez gazteak musika elektronikoan murgilduta bizi dira, eta mundu hori zabaltzeko jardunaldiak antolatu dituzte urrirako.

Ainhoa Andonegi

Khris Rios eta B. Gutierrez. Bi gazte, bi DJ; musika elektronikoak batu dituen bi musikari. Autodidaktak izan dira, bai bata eta bai bestea; dena euren kabuz ikasi dute, orduak eta orduak sartuz.

Ez da samurra izan, baina musika elektronikoa bere ogibide bihurtu du Khris Rios-ek. 30 urte ditu, eta dagoeneko beteranoa da mundu honetan. Bizitza erdia darama kaskoak jantzi eta diskoetako musika nahastuz musika egiten. 15 bat urterekin hasi zen biniloetako abestiak elkar nahasten. Koadrilako lagunen afizioa zen, eta denen artean erosi zuten musika ekipoa. Lokalean jarri zuten lanerako tresna, eta aisialdiko ordu guztiak eta gehiago ematen zituen lokalean, musika pintzatzen. Poliki-poliki, Elgoibarko tabernetan hasi zen DJ lanetan, eta gaur egun Txitxarro dantzalekuko DJa da. Baina bere musika mundu zabalean ere entzun dute: Euskal Herriko mugak gainditu eta munduan barrena ere ibili izan da Khris Rios dantzale-



Txitxarro dantzalekuko DJa da Khris Rios.

kuetan musika jartzen. Iaz, esate baterako, Japoniara egin zuen bidaia. Tokion pasatu zuen astebeta eta harritura itzuli zen herrialde hartako musika kulturarekin: "Ez dute diskorik pirateatzen, dena orijinala nahi dute". Japoniarrek musika elektronikoa pasioz bizi du-

tela dio Khris Rios-ek; berak bezalaxe. Eguneko 24 orduak musikari eskaintzen dizkio, baina esaera zaharrak dioen moduan, *gustuko lekuan aldaparik ez*. Khris Rios-ek bere afiziotik egin du ofizioa, eta bere lanak izugarri betetzen duela aitortu du. "Musika pintzatze-



B. Gutierrez, musika estudioan.

ra joatea niretzako ez da lana. Gustura joaten naiz, eta hobetzeko eta garatzeko aukera eskaintzen dit gainera”. Musikaz bizitzea zaila dela uste du, eta alde horretatik pozik dago lortu duenarekin, baina urteetan eginiko lanaren emaitza dela dio. “Bizitza honetan arriskuak hartu behar dira. Orain egiten ez badut, noiz ba? 50 urterekin?”.

Beñat Gutierrezek 26 urte ditu, eta orain dela hamar bat urte hasi zen musika elektronikoa sortzen. Etxean ekin zion musika ekipo txiki batekin, eta bi urtez bere kabuz jardun ostean, Elgoibarko hainbat tabernetan hasi zen DJ lanetan.

DJaren lana musika jartzea dela uste du jende askok, baina hori baino gehiago dela diote Khris eta Beñatek. Sormen hitza aipatu dute biek. “DJ batek bere estilo propioa ematen die abestiei, eta horretan datza DJaren arrakasta”. Efektuak, bolumena, tonua... gauza asko zaintzen dituzte, eta argi daukate batak zein besteak, abesti berberak pinxtatu arren, bi DJren saioak erabat desberdinak izaten direla.

Zer da musika elektronikoa?

Kontzeptu honen atzean esanahi zabala dago. Jende askok garai bateko bakalao musikarekin lotzen du musika elektronikoa, baina etiketa hori kendu nahi diote biek ala biek musika elektronikoiari. “Musika elektronikoa hogei bat genero hartzen ditu barnean. Techno eta house estiloak dira ezagunenak, baina askoz gehiago daude”. Azken batean, instrumentu elektrikoekin eta digitalekin egiten den musikari esaten zaio musika elektronikoa, baina edozein estilo-

tako musikak balio du musika elektronikoa egiteko. Khris Rios eta B. Gutierrezek denetarikoa musika entzuten dute, eta musika estilo guztiak dira baleko euren kantuak sortzeko. Abesti bati zati bat hartu, beste kanta baten doinua gehitu eta nahasketak eginez sortzen dituzte euren abestiak. Baina sarri entzun behar izan dute beraiek egiten dutena musika baino gehiago zarata dela. Horrelako esanei jaramonik ez egiten ahalegintzen dira, baina euren gustuak errespetatzeko eskatu dute, beraiek beste-enak errespetatzen dituzten bezalaxe. “Gaur egun modan dago musika elektronikoa”.

Teknologia berriek musika elektronikoa- ren garapena erraztu egin duela uste dute. Eurak, baina, eskola zaharrekoak dira. Bini- loekin ikasi dute abestiak nahastean, eta hor- rrek ez dauka gaur egungo teknologiarekin zerikusirik. “Bi disko nahastu eta bonboak bat egitea sekulakoa zen biniloen garaian. Gaur egun aro digitalean gaude, eta dena programatu daiteke”.

Teknologia berriek musika sortzeko bide eman duten bezalaxe, musika bera hedatze- ko ere kanal garrantzitsua bilakatu da sarea. “Merke eta erraz norberaren abestiak zabal- tzeko aukera handia eskaintzen du Internetek. Artistek ere gero eta disko gutxiago ater- ratzen dituzte, eta gehienek Interneten jar- tzen dituzte abestiak”. Euren ere erabiltzen dute Internet abestiak ezagutzera emateko. Izena hartzen ari dira bi gazte hauek musika elektronikoa- ren alorrean, eta gaurtik hasita, urriko barixakuetan herritarren eskura jarriko dute euren jakintza.

DJ eta MUSIKA EKOIZPEN JARDUNALDIAK

• URRIAK 4, 18:00-19:00 (Gaztelekuan)

Musika elektronikoiari buruzko erakustaldia egingo dute Khris Rios eta B. Gutierrezek. Ordubetez, DJ lanak zertan datzan azalduko diete Gaztelekuan batzen diren gazteei. 13 eta 17 urte arteko gazteentzako saioa prestatu dute.

• URRIAK 11 eta 18, 18:00-20:00 (Kultur Etxeko sotoan)

Musika elektronikoiari buruzko bi hitzaldi eskainiko dituzte, eta musi- ka elektronikoa nola sortzen den ere irakatsiko dute. 14 urtetik gora- koentzako saioak izango dira, eta bi orduko iraupena izango dute.

• SAIO IREKIAK

Elgoibarren eskainiko dituzte jar- dunaldiak, baina argi utzi nahi dute saio irekiak direla eta inguruko he- rrietakoek ere parte hartzeko auke- ra dutela.

• SAKONTZEKO AUKERA

Udalak emandako dirulaguntzei esker antolatuta dituzte hastapen jar- dunaldiak, baina nahi duenak musi- ka elektronikoiari sakontzeko auke- ra izango du aurrerago eskainiko dituzten ikastaroetan.



Joan dira Aiastiako San Migel jaiak

Urtero legez, demak eta kirol probak izan dira nagusi Aiastiako jaien barruan. Zapatuan Euskal Herriko arraza libreko artzain txakur txapelketa jokatu zuten zortzi artzain eta zortzi txakurrek: Manuel Gorritik eta *Nere* txakurrak lortu zuten puntuaziorik altuena (373 puntu) eta, honenbestez, Euskadiko txapela. Bolo txapelketa ere egin zuten auzoko bolatokian eta Atxurik irabazi zuen saioa, sei txirlo botata. Kepa Arrizabalaga sailkatu zen bigarren postuan bost txirloekin, eta bera izan zen lehen auzotarra. Domekan, bestalde, Igon Manzidor debarrak irabazi zuen Aiastiara korrika igoera, 20:28 denborarekin. Emakumezkoetan Ainhoa Lendinez izan zen azkarrena (27:26). Idi dema, bestalde, Pako Epiolaren idi-pareak irabazi zuen, 51 plaza, zinta bat, hiru metro eta 90 zentimetroko markarekin. Horrez gain, Haritz dantza taldeak Borja Uzuriagari eskaini zion dantzaldia. Errifaren zozketan 5391zenbakia izan da sariduna (ordezkoa, 1886). www.elgoibARREN.net



Zabalik dago Elgoibarko Izarraren 'Tertuliak' programan izena emateko epea

Urriaren 11ra arteko epea dago izena emateko

Hasi da Mintzalagunen kanpaina, eta horrekin batera baita Elgoibarko Izarraren *Tertuliak* programan izena emateko epea ere. Euskaraz aritzeko ohiturarik ez daukatenak eta badaukatenak astean ordubetez batzen dira, erabileran eragiteko eta hizketarako konfiantza eta gune berriak sortzeko, eta urtetik urtera estimazio handiagoa dute talde hauek. Aurten, Mintzalagunak programa sortu zenetik hogeitaz urtera, astero ahalegin hori egiten dutenak omen du nahi izan dituzte, Jasone Mendizabal Topaguneko zuzendariak kanpainaren aurkezpen ekitaldian azaldu zuenez: "Egunerokoan euskararen alde beren alea jartzen duten supermintzalagunak omendu nahi ditugu, ahalegin horri esker biziberritzen delako euskara, eta superheroiak bezala, sarri ikusezinak izaten direlako norbanako horiek guztiak". Azken urteotan 20-30 lagun elkartu izan dira Elgoibarren *Tertuliak* programaren barruan, eta 5.500dik gora elkartu ditu Mintzalagun egitasmoak Euskal Herri osoan.

Elgoibarko Izarrak urriaren 11a arteko epea jarri du *Tertuliak* programan izena emateko. Hala ere, ikasturtean zehar ere eman ahal izango dute izena hala nahi dutenek. Horretarako, Elgoibarko Izarrak Ubitarte kalean daukan bulegora joan behar da, edota kudeaketa@elgoibar-koizarra.com helbidera idatzi.

Aubixaren 40 urteko ibilbidean lagun izan dituztenei eskerrak emateko ekitaldia, urriaren 19an



Aurten bete dira 40 urte Elgoibarko Izarrak eta Aubixa baserriko jabeek, hitzarmen baten bidez, Aubixa baserria Pedro Migel Urruzuno Ikastolako haurren zerbitzura ipini zutela. Behe jotzeaz zegoen etxean obrak egin, eta, poliki-poliki, Elgoibarko neska-mutilentzako euskal udal-lekua prestatu zuten Aubixan. 40 urteko ibilbidea egin ondoren, Elgoibarko Izarrak eta Aubixa baserrikoek urte hauetan guztietan lagun izan dituztenei eskerrak emateko eta oroitzapenei hautsak kentzeko ekitaldia antolatu dute urriaren 19rako. Aubixa sortzeko ideia izan zutenak eta etxea berritzeko lanetan jardun zuten gurasoak, 40 urteotan umeekin lanean jardun duten begiraleak eta hezitzaileak, eta azken urteotan Aubixatik pasa diren neska-mutilak gonbidatu dituzte ekitaldira. Hori bai, ekitaldian parte hartzeko, izena eman behar da aurrez, antolakuntza lanak erraztu aldera. Horretarako, urriaren 16a da azken eguna. Urriaren 19an, 18:00etan, ongi-etorria egingo diete Aubixan ekitaldira batuko diren guztiei, eta 19:00etan hasiko da eskerrak emateko ekitaldia. Ondoren, 20:30ak aldera, afari merienda egingo dute. Gauean, 22:00etatik aurrera, erromeria izango da.



Diskoa kaleratu du Napoka Iriak: 'Arnasten ikasteko berriz'

Arnasten ikasteko berriz diskoa kaleratu du Napoka Iria taldeak, eta bihar zortzi, urriaren 11n, aurkeztuko dute Donostiako Lugaritz kulturgunean eskainiko duten zuzenekoan. Aurreko diskoko oinarri berdina dauka azken lan honek, baina Gorka Bereziartua kazetariak aurkezpen orrian jaso duenez, interbalo txikiagotan dabilta melodiak, eta sakanatua dago lehen kanten puntu jakinetan kontzentratzen zuten tentsioa. Bereziartuak dio oro har indie-folk soinurantz lerratu direla azkeneko lan honetan.

BARRENEK aldizkarian jasotakoaren berri emango du Euskadi Irratian

Tokikomek eta Euskadi Irratiak hitzarmena sinatu dute, eta horri esker, Tokikomen bildutako tokiko hedabideek, txandaka, nork bere herrian gertatzen denaren berri emango dute Euskadi Irratian, asteleheneko Mezularia irratsaioko Tokikom gauzak tartean (18:30). BARRENEK ere parte hartuko du saio horietan. Estreinakoz astelehenean parte hartu zuen BARRENEK. Andoaingo *Aiurri* eta Lasarteko *Txintxarri* aldizkarietako Jon Ubeda eta Maider Azurmendi kazetariekin batera arituz zen Asier Orbea gure kazetaria. Azaroaren 11n izango dugu hurrengo saioa.

ZAIRA ZANGUITU

Zuzendari laguntzailea

Amaren eskuak estreinatu berri den filmean lan egin du Zaira Zanguitu. Estreinakoz Donostiako Zinemaldia-ren 61. edizioan ikusi ahal izan dugu, Zinemira, euskal filmen atalean. 2012ko udan filmatu zen Karmele Jaioren eleberrian oinarriturik Mireia Gabilondok zuzendutako lana. Zuzendaritza taldean lan egiten du Zanguitu filmazioetan, urteak daramatza zineman lanean. Filmak egiteaz gain hainbat zinemalditan lan egiten du, Euskal Herrian eta kanpoan.

Leire Urkidi



“Zinea ofizioa eta afizioa da niretzat”

Nola ikusi duzu Amaren eskuak filma bukatuta?

Emozioz bizi izan nuen estreinaldia. Zinemaldian ikusi nuen talde guztiarekin batera. Egia esan, bertan lanean aritu garenok ez dugu filma ikusle arrunt batek bezala ikusten, ez gara objektiboak. Hunkitu egin ginen. Ondo islatuta dagoela uste dut, iristen dela! Hori da helburua!

Istoriok hasieratik ospitalera garamatza.

Luisa (Esther Remiro) ospitalera eramaten dute memoria galdu duela. Protagonistari, Nereari (Ainara Gurrutxaga), bititza hankaz gora jartzen zaio espero ez duen albiste hau jasotzen duenean. Horren aurrean bere egunerokotasuna aldatu egiten da, oreka hausten zaio. Ondorioz, ingurukoekin dituen harremanak aldatu egiten dira. Nola egin aurre guzti horri? Hori da filmak planteatzen duena.

Karmele Jaioren nobela arrakastatsuan oinarrituriko filma da. Jaio agertu al zen filmaketan?

Etorri zen, eta adierazi zuenagatik, oso arraroa egin zitzaion berak sorturiko pertsonaiekin hitz egiten aritea.

Zein da zure lana pelikula bat egiten duzunean?

Zuzendaritza taldean lan egiten dut: niretzat lan erakargarria da. Gidoia irakurri eta hitz horiek iruditan eraikitzea benetan pribilegio bat da. Prozesua zoragarria da: Gidoia banatzetik hasi eta filmaketa plana osatzera arte, casting-a, lokalizazioak, figurazioa... Unibertsitatean ikus-entzunezko ikasketak bukatzen ari nintzenean bekadun hasi nintzen eta

zuzendariaren lehen laguntzaile izatera iritsi naiz. Zuzendaria ez da filmazio batean guztia kontrolatzera iristen, beraz, zuzendaritza taldea bere ordezkaria da prozesu guztia kontrolpean mantendu ahal izateko.

Zenbat pelikula filmatu dituzu?

Hamabi filmetan lan egin dut: *La buena nueva*, *Gernika Bajo las bombas*, *La conspiración* Pedro Olea eta *Querejeta* zinegileekin...

Zer da zuretzat zinea?

Nire ofizioa eta afizioa da.

Nola ikusten duzu zinemaren egoera?

Berriz asmatu beharra du, ezin da diru-laguntza publikoen mende egon. Egun pelikula bat egitea oso zaila da. Bestalde, nori ez zaio gustatzen film bat ikustea? Istoriok kontatu eta entzutea berruak daramagun sena da. Txikitatik gustatzen zaizkigu istoriok, bai ipuin edo pelikulen bidez edo elkarrizketa soilak. Hori dela eta, zineak jarrai dezan lan egin behar dugula uste dut, gauzak egiteko modu berriak aurkitu behar ditugu.

Egungo zinearen egoerari alde onik ikusten diozu?

Dokumentalak indarra hartzen ari dira, fikzioa eta fikzioa ez denaren arteko mugak desagertzen ari dira. Niri, adibidez, dokumentalak zine aretoetan errazago ikusteko aukera egotea gustatuko litzaidake, Elgoibarren bertan. Zergatik ez noizbehinka dokumental ziklo bat?

Andres Granados zena omenduko dute Durangon

Granadosek tuba jotzen zuen Elgoibarko Udal Musika Bandan

Ekainaren 13an hil zen Durangon Andres Granados, urteetan Elgoibarko Udal Musika Bandako tuba jotzailea izan zena. “Gizon jatorra, langilea eta musikari aparta”, Txomin Mujika Elgoibarko Udal Musika Bandako zuzendariaren hitzetan. Harreman estua zuen Granadosek gure herriarekin, eta Mujikaren esanetan, handia da hark laga duen hutsunea. Hori dela eta, domekan Durangon haren alde egingo duten kontzertuan parte hartuko dute Elgoibarko bere lagunek (20:00).

Jaiotzez granadarra zen Granados, eta ume zela etorri zen Durangora bizitzera. Ertzaintzaren banda sortu zutenean, han hasi zen musikari, eta garai horretan hasi zuen Elgoibarkoekin zuen harremana. Ertzaintzaren banda urtero etortzen zen Elgoibarrera, eta Granadosekin “harreman estua” egin zutela dio Mujikak. Halaxe, tarteka Elgoibarkoekin batera jotzen hasi zen Granados, eta Ertzaintzaren musika banda laga zuenetik, tuba jo-



tzen aritu zen Elgoibarko Udal Musika Bandan. Era berean, Durangoko bandan ere jotzen zuen, eta duela bost urtetik hil zen egunera arte, Bilboko Udal Musika bandako errejidorea ere izan zen. Musika munduan gizon “maitatua” zela esan du Mujikak eta han eta hemen kolaboratzen zuela; “beti zegoen laguntzeko prest. Jaso ditugun dolumin mezu guztiak dira horren erakusle”, nabarmendu du. Durangon, Arandaño kultur elkarteak antolatu ohi dituen ekitaldietan “gorputz-arima” aritzen zen Granados.

‘Ni para ti, ni para mí’ antzezlan eskainiko du Txalo Produksioak-ek bihar zortzi, hilaren 11n



Txalo Produksioak konpainiaren *Ni para ti, ni para mí* antzezlan ikusteko aukera izango da Elgoibarren urriaren 11n. Bi saio izango dira: 20:30ean eta 22:15ean. Juan Luis Iborrak zuzendutako obra da, eta komedia beltz gisa katalogatu dute. Belinda Washington eta Miriam Diaz-Aroka aktore espainiarrek elkar ulertu ezin diren bi emakumeren papera betetzen dute obran. Osagai asko ditu *Ni para ti, ni para mí* antzezlanak: telefono beltz bat, hildako bat, bi emakume, herentzia bat, etxebizitza bakar bat, eta Marta eta Beak, obrako bi protagonisten, eguneroko ezkutua. Elkar ulertzeraren kondanatura daude Marta eta Bearen, baina gutxi dute komunean. Amesgaiztorik txarrenean ere imajinatu ezingo zuten zerbaitek, baina, elkar ulertzeraren behartuko ditu, eta harreman sendoa sortuko da haien artean.

Helduentzako dantza ikastaroa antolatu du Haritz dantza taldeak

Dantzan ikasi nahi duenak aukera paregabea izango du urrian. Izan ere, Haritz dantza taldekoek helduentzako dantza ikastaroa antolatu dute. Astelehenean, urriaren 7an, hasiko da ikastaroa, eta bi talde egingo dituzte: hasiberriena eta aurrez dantzan ibilitakoena. Hasi berrientzako eskolak astelehen eta eguenetan izango dira, eta aurreko urteetan ibilitakoentzakoak astelehen eta eguaztenetan. Orduetegi bera izango dute biek, hala ere: 21:00etatik 22:00etara. Interesatuak gaur dute izena emateko azken eguna. Musika eskolan eman behar da izena, eta izenemateagatik 30 euro ordaindu behar dira.

Jaime Zamakola garaile, Mendaroko aire libreko pintura lehiaketan

Aire libreko pintura lehiaketa egin zuten domekan Mendaron, eta guztira, 30 lagunek parte hartu zuten. Nagusien sailean hamazazpi lagun aritu ziren, eta Jaime Zamakolaren obra saritu zuen epaimahaiak. Carlos Espiga sailkatu zen bigarren eta Jose Migel Arranz, iazko irabazleak, egin zuen hirugarren. Gaztetxoaren sailean, berriz, hamahiru lagun aritu ziren, eta Mikel Iriondo eta Inge Galarraga saritu zituzten.

‘Hansel eta Gretel’ haurrentzako antzezlan, hilaren 13an

Glu-Glu konpainiak *Hansel eta Gretel* haurrentzako antzezlan eskainiko du hilaren 13an Elgoibarko Herriko Antzokian (16:30). Grimm anaien ipuin klasikoan oinarritutako lana da. Hansel eta Gretel anai-arrebak basoan galduko dira, eta noraezean dabilzala, txokolatzeko etxea aurkituko dute. Han, sorgin maltzur batek haurrak giltzapetuko ditu, gero jateko asmoz.

Errosario kaleko jaien barruan, alde zaharreko ondare kulturala ezagutzeko ibilaldia egingo dute bihar

Pello Arrieta historialariak gidatuko du ibilaldia, eta 12:00etan abiatuko dira Kalebarren plazatik

Jaietan daude Errosario kalean. Asteazkenean hasi zituzten Ama Birjinaren omenezko ospakizunak, lore eskaintzarekin, baina astelehenera arte izango da oraindik ere zertaz gozatua. Ohiko ekintzez gain, aurtan, Elgoibarko kasko historikoa ezagutzeko ibilaldia ere antolatu dute biharko. Ordu eta erdi inguruko ibilaldia izango da, eta Pello Arrieta historialariak zuzenduko du. Errosario kaleko, Kalegoen plazako, San Bartolome kaleko eta Kalebarren plazako ondare kulturalaren berri emango die Arrietak ibilaldira batzen direnei. Kalebarren plazatik abiatuko dira, 12:00etan.

Gaur, 18:00etan, Kiribil ere batuko da Errosario kaleko ospakizunetara. Atxutxia- maikako, Elgoibarko Izarraren aisialdi taldeko, lagunek haurrentzako ikuskizuna eskainiko dute. Ondoren, 19:00etan, Mauxitxa txarangakoak kalejiran irtengo dira, buruhandiek lagunduta, eta ordu erdi geroa-



Domekan, ezpata dantza izango da egitarauko ekitaldi nagusia.

go, igel-toka jaurtiketako txapelketa jokatu-ko dute Errosario kalean. Gaurkoak bukatze-ko, 20:00etan, luntxa edo afalaurrekoa emango dute.

Bihar, herriko ondare historikoa ezagutzeko ibilaldiaz gain, herri kirolak ere izango dira, 13:00etan. Mendaroko giza probeta-ko talde mixtoak eskainiko du erakustaldia.

Domekan, berriz, Haritz euskal dantzari taldekoek Errosarioko Ama Birjinaren omenez dantzatuko duten ezpata dantza

izango da eguneko ekitaldi nagusia, 11:30ean. Meza nagusiaren ostean izango da. San Bartolome parrokian hasi eta San Bartolome kaletik Errosarioko kalean barrena, plazara itzuliko dira dantzariak. Ondoren, ardo goxoa eta gailetak dastatzeko aukera izango da. 18:00etan, berriz, Errosario Santua erreztatuko dute. Astelehenera, 19:00etan, meza izango dute, kalean hildakoen omenez, eta ondoren, 20:00etan, salbea.

“Euskararen bizi indarrak” hartu zuen Soraluze zapatuan



Ehunka euskaltzale elkartu ziren zapatuan Soraluzen, Topa Egunean, euskara elkarteen eta euskaltzale guztien egunean. Euskalduntasunari, auzolanari, plazerari, plazari eta mugimenduari berari balioa ematea aldarrikatzeko ba-

tu ziren guztiak, tartean Elgoibarko Izarrak egindako deialdira batu ziren hainbat euskaltzale. Jai giroa izan zen nagusi. Egun osoko egitaraua antolatua zuten euskara elkarrekin elkarlanean, eta elkarrekin bazkaldu zuten hango eta

hemengo euskaltzaleek. Ez zuten, ez, aspertzeko astirik izan.

Liburu aurkezpena eta jai

Goizean, *Hiztunpolisa* bere azken lana aurkeztu zuen han bertan Jon Sarasua bertsolari eta idazleak, Mikel Irizar Topaguneko lehendakaria, Joxe Angel Irigaray euskal idazle eta poeta eta Julen Arexolaleiba soziolinguista ondoren zituela. Arratsaldean, berriz, Napoka Iria taldearen kontzertua, Kokein taldearen akustikoa, Uxue Alberdi eta Ainhoa Agirreazaldegiren bertsolarien saioa, Lasarteko antzerki konpainiako lagunentzako antzezlanaren eta Irriren Lagunen saioa izan zituzten, eta Soraluze bertako Xero Xiete taldeak girotu zuen iluntze-gau parte.

Canfranc-eko kilometro bertikala irabazi du Iñigo Larizek

42 korrikalarik hartu zuten parte guztira

Canfranc-eko kilometro bertikala jokatu zuten zapatuan, eta 42 korrikalariren artean, Iñigo Lariz elgoibartarra izan zen azkarrena. 3,8 kilometroko ibilbidean 1.100 metroko desnibela gainditu behar izan zuten partaideek. Euria, hotza eta haizea izan zituzten arren, proba polita izan zela adierazi du Larizek, eta lainoek inguruko mendietako ikuspegia oztopatu arren, ederki gozatu zuela gaineratu du. Hurrengo proba Anboton jokatu du, urriaren 12an.



Urriaren 12an amaituko da Debarrena BTT probarako izena emateko epea

Urriaren 13an jokatu da Debarrena BTT martxa, eta interesatuek bezperara arte izango dute izena emateko epea. Izenematea Internetez egin behar da, www.kirolprobak.com webgunean, eta arduradunek esandakoaren arabera, egunean bertan ez da egongo izena emateko aukerarik. Aurten ere bi ibilbide izango dira aukeran: bata, laburra, 25 kilometrokoa, eta bestea, luzea, 45 kilometrokoa. Biak ala biak Karakate mendian zehar. Ibilbide laburraren zailtasun maila altua da eta oso altua ibilbide luzean. Informazio gehiago www.debarrenaturismo.com webgunean.

Arkaitz Egaña txapelkunorde, Gipuzkoako Ehiza Xehetxapelketan



Gipuzkoako Ehiza Xehetxapelketa jokatu zuten joan zen asteburuan Zanbranan, eta Arkaitz Egaña elgoibartarrak bigarren egin zuen. Gipuzkoa oso mila bat ehiztarik hartu dute parte Gipuzkoako txapelketan, eta 50 onenak sailkatu ziren azken saioan parte hartzeko, tartean Egaña. Urnietako Jose Luis Toledotxiki ehiztariak irabazi zuen txapelketa, bederatzi eper ehizatuta, eta Egaña bigarren lekuan sailkatu zen, sei eperrekin. Iaz berak irabazi zuen txapelketa, eta horri esker, Euskadiko Txapelketa jokatu zuen. Hirugarren egin zuen, eta Espainiako txapelketarako sailkatu zen, hura ere irabaziz. Bera da egungo Espainiako txapelketa.

EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi 1 – Gernika 1 (3. maila)
Zumaia 3 – Elgoibar 1 (Erreg.)
Aurrera Vitoria 1 – Elgoibar 1 (Neskak)
Elgoibar 1 – Zumaia 1 (Jub.)
Zumaia 2 – Elgoibar 1 (Kad. A)
Elgoibar 6 – Aurrera Ondarroa 1 (Kad. B)

ESKU PILOTA

Gipuzkoako Txapelketa

Lagunak 13 – Tartaloetxe 22 (1. mailako nag.)

PALA

Lagunak 25 – Usurbil 15 (2. mailako nag.)
Altzatarra 25 – Lagunak 5 (2. mailako nag.)

ARETO FUTBOLA

Estando Martin Jaca 2 – Concepto Egile 6 (2B)
King-Kong 6 – Aldapeta 0 (Jub.)

SASKIBALOA

Viento Sur 55 – Tecnum 65

ESKUBALOA

Alcorta Elg. 35 – Arrasate Ford Mugarri 26 (1. naz.)
Astigarraga Elg. 34 – Pulpo 22 (Jub. neska)
Tecnifuelle Elg. 28 – Pulpo 10 (Kad. neska)

AGENDA

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 5

19:30 Concepto Egile – AD Fuenmayor (2B)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 5

16:00 Elgoibar – Zestoa (Erreg.)

18:00 Elgoibar – Bizkerre (Neska)

12:00 Elgoibar – Urki (Kad. A)

10:00 Elgoibar – Lagunak (Inf. Txiki)

ESKUBALOA (Kiroldegian)

Zapatua, 5

12:30 Txariduna Elg. – Amenabar (Kad. mut.)

16:00 Pneumax Elg. – Urola (Kad. mut.)

17:30 Beristain Elg. – Egia (Jub. mut.)

LANA

ESKAERA

- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko.
☎ 672 076 852
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko.
☎ 686 052 084
- Gizonezkoa lan bila: garbiketarako lanetan ibilitakoa.
☎ 692 332 871
- Ingeles eskolak ematen ditut, etxez-etxe.
☎ 943 744 062 / 680 319 002
- Emakume arduratsua lanerako prest. Garbiketa lanetan esperientzia handia. Portalak, tabernak, etxeak, elkarteak... garbituko nituzke. Orduka. Gauzez lan egiteko prest. ☎ 696 583 671
- Frantsesa, latina, euskara eta gaztelarako klaseak ematen ditut. ☎ 617 114 185
- Emakumea eskaintzen da lanerako. Nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko harrerarako edo zerbitzari lanetarako.
☎ 606 354 982
- Emakumea asteburuetan lan egiteko prest.
☎ 609 842 165
- Emakumea lan bila. Paperak eta erreferentziak

ditut. ☎ 638 863 019

- Gizon gaztea lan bila.
☎ 662 576 146
- Mutil arduratsua edozein lan egiteko prest.
☎ 631 429 711
- Emakumea lan bila. Edozertarako eta edozein ordutegitan.
☎ 628 188 028
- Klase partikularak ematen dira: Batxilergoko matematika, LH, DBH, kontabilitatea, ekonomia...
☎ 666 042 710
- Adin eta maila guztientzako ingeles eskolak ematen ditut. Azterketa ofizialetarako prestakuntza ere bai.
☎ 680 858 550 / 943 741 594
- Neska eskaintzen da orduka lan egiteko. Gauzez ere bai.
☎ 632 239 368

ETXEBIZITZAK

- Pisu alokatzen da. Bi logela, egongela handia, sukaldia, igogailua, terraza, ganbara.
☎ 646 581 666
- Pisu txikia hartuko nuke alokairuan Elgoibarren.
☎ 690 701 118

- Etxea salgai erdigunean. 91m2, dena kanpoaldera, igogailuarekin. Teilatua eta fatxada berrituta. 143.000 euro.

☎ 609 141 312

GARAJEAK

- Garaje itxia alokairuan, Lekuederren, 4. solairuan. 65 euro hilean.
☎ 660 042 159
- Garaje itxia alokairuan, Santa Klaran.
☎ 615 799 813

BESTELAKOAK

- Taxi lizentzia salgai, gama altuko autoarekin. Bezero poltsa handia.
☎ 630 884 181

KINTOAK ETA OSPAKIZUNAK

- 1988an jaiotako enafaria, azaroaren 9an, Karakate jatetxean. 19:00etan batuko dira, udaletxe azpian. 35 euro ordaindu behar dira, urriaren 13rako, kontu honetan: 2095 5036 50 9112978251

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

- Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **18€** (alokairua) - **20€** (salmenta). Autoak saltzea: **15€**. Bestelakoak: **8€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **6€ gehiago** ordaindu behar dira.
- **BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **12€** (alokairua) - **15€** (salmenta). Autoak saltzea: **12€**. Bestelakoak: **6€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **5€ gehiago** ordaindu behar dira.



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net



- Gure etxe komunitatean otsailaren 1ean izendatu genuen presidentea. Txandaz ha-l ga zuekion etxe-jabea aukeratu genuen kargu horretarako. Ordutik, hainbat bilera egin ditugu, eta presidentea ez da haietako batzuetara agertu. Gainera, uko egiten dio etxe-jabeen batzordeak onartutako erabaki batzuk betetzeari. Ba al dugu aukerarik presiden-te kargutik kentzeko, kudeaketa txarra egin duela arrazoituta?

Egoera batzutan, dela kontuak gaizki kudeatu dituelako edo dela hartu dituen erabaki batzuk okerrak izan di-relako, urtea amaitu baino lehen presidentea kargutik kentzea erabaki dezake etxe-jabeen batzordeak. Presiden-te izatea eskubidez dagokigu denori, baina kargu horrek betebeharrak eta ardura batzuk hartzea eta betetzea ere es-katzen du. Legeak aukera ematen du ez ohiko batzar bat antolatzeke, eta gai-ordenan presidente karguaren gaia sartzeko. Presidenteak uko egiten badiu batzar hori antolatzeari etxe-jabeek aukera izango dute eurek deitzeko batzarrerara, baina horretarako, etxe-jabe guztien laurden batek egin behar dute eskaera.

Gomendioa: Etxe-jabeen batzordearen aktan presidentea kargutik kendu dela jaso beharko da, eta erabaki horrek etxe-jabeen gehiengo sinplearen onspena jaso beharko du. Presidente berria ere gehiengo sinplez onartu beharko da. Akta hori presidente berriak sinatu beharko du gero.

ROSA Mª PINTADO: Etxaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• Dena prest egun handirako! Zorionak, **txapeldun!**



• Zorionak, **June**, gaur 5 urte betetzen dituzulako. Familiakoen partez, muxu handi bat.



• Zorionak, **Ander**, zure seigarren urtebetetzean. Familiakoen, eta bereziki, Malenen partez.



• Zorionak, **Paul!** Gaur 2 urtetxo! Muxu handi bat guztion partez.



• Zorionak, **Jairo**, domekan 3 urte egingo dituzulako. Gurasoen eta Amandaren partez.



• Zorionak, **Leire**, bihar 3 urte beteko dituzulako. Familiakoen, eta bereziki, Ibairen partez.



• Zorionak, **Iker**, urriaren 2an 6 urte egin zenituelako. Etxekoen partez.



• Zorionak, **Iratxi!** Igan-dean 3 urte! Muxu handi bat familiakoen partez.



• Zorionak, **Maleni** Bihar 4 urte! Muxu potolo bat familiako guztion partez, eta bereziki, Naroa eta Unaxen partez.



• Zorionak, **printzesa!** Bihar 4 urte beteko dituzu! Ondo pasa eta txokolatezko muxuak aitatxo, amatxo, eta bereziki, Unaxen partez.



• Zorionak, **Danel**, abuztuaren 7an urtetxo bat egin zenuelako. Familiako guztion partez.




• Zorionak, **Ander!** Muxu handi bat familiako guztion partez.



• Zorionak, **Javier**, urriaren 3an 9 urte egin dituzulako. Familiako-en partez. Palmira, Roman, Juan, Santos eta amatxoren partez.




• Zorionak, **Elene**, 3 urte egin zenituelako. Muxu handi bat familiako-en eta bereziki, Maria, Xabat eta Maialenen partez.



Gaur herriko plazan egongo gara askotariko ekintzak egiten, 16:15etik 18:00etara. Animatu, eta zatoz!

Urriaren 5ean, larunbata, lasergunera irteera. Arratsaldean gaztelekuko lokala itxita egongo da



GERALD MORISSET

*Zure irribarre natural eta benetakoa,
zure adiskidetasuna eta alaitasuna
faltan botako ditugu gure egunerokotasunean,
ezagutu zintugun denontzat izan baizinan laguna;
horregatik toki bat duzu betiko gu guztion barnean.*

Anbulatorioko zure lankideak.
(Elgoibar - Sorluze - Mendaro)



4 barixakua

Aisialdia

16:15 Ludotekako jaiak
Kalegoen plazan.

Erakusketa

17:30 Atxutxiamaiak
Atxutxiamaiakaren argazki erakusketa, Kultur Etxean. Domekara arte egongo da zabalik. Bihar goiz eta atsaldex, eta domekan, eguerdira arte.

Musika

18:00 Musika erakustaldia
Musika elektronikoari buruzko erakustaldia eskainiko dute Khri Rios eta B. Gutierrez DJek. Gaztelekuan.

Feria

17:00 'Dendak bizirik'
Txankakuako dendetan %10eko deskontuak. Umeentzako kale antzerkia ere egongo da.

Dantza

22:00 'Vacuna Salsa weekend'
Gaur hasi eta domekara arte, Ikastolan.

Zinema

21:30 Bideo-forum
Haizeak antolatuta, *La delicadeza* pelikula ikusiko dute. Dinamizatzailea: Loredi Salegi.

5 zapatua

Auzolana

8:00 Sargoate
Sargoateko iturria berrituko dute auzolanean IMHn batuko dira.

Feria

10:30 Stock feria
Txankakuak antolatuta, Lekuederren.

9 eguaztena

Aisialdia

18:00 'Gaztemapping'
Gazteen aisialdi ohiturak aztertzekeo bigarren tailerra. IMHn.

Hitzaldia

19:00 Baga, biga, higa...
Atzera begira, aurrera egiteko zikloa antolatu dute Elgoibarko Izarrak eta Udalak. Eñaut Elorrietak eta Mikel Markezek euskal musikaren historiari buruzko saioa eskainiko dute. Musika Eskolako auditorioan.

ERROSARIO KALEKO JAIK

4 BARIXAKUA

18:00 Kiribilka. Elgoibarko Izarrak antolatuta.
19:00 Kalejira. Mautitxa txarangarekin eta buruhandiekin.
19:30 Igel toka txapelketa
20:00 Luntxa. Kultur Etxeko sotoan.

5 ZAPATUA

12:00 Elgoibar Ezagutzen. Pello Arrietak gidatuta, alde zaharreko ondare historikoa ezagutzeko ibilaldia.
13:00 Herri Kirolak. Giza proba erakustaldia, Kalebarren plazan.

6 DOMEKA

11:30 Meza nagusia
Ondoren, ezpata dantza eta prozesioa. Haritz dantza taldekoekin eta txistulariekin.
Amaieran, ardo goxoa eta galletak eskainiko dituzte

7 ASTELEHENA

19:00 Meza eta errosarioa
20:00 Salbea. Errosario kaleko Ama Birjinaren aurrean.

BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez	Gauz
9:00 - 22:00	22:00 - 9:00

4	Zabaleta	Yudego
5	Barrenetxea	Barrenetxea
6	Barrenetxea	Barrenetxea
7	Ibañez	Etxeberria
8	Garitaonandia	Garitaonandia
9	Etxeberria	Etxeberria
10	Fernandez	Garitaonandia

Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

ZINEA

«Mud»

4, barixakua: 22:15
5, zapatua: 19:00/22:15
6, domeka: 19:00
7, astelehena: 21:30



Jeff Nichols. AEB, 2012. 130 min. Drama.
Aktoreak: Matthew McConaughey, Reese Witherspoon, Sarah Paulson, Tye Sheridan.
Ellis eta Neckbone 14 urteko gazteek Mississippiko irla batean errefuxiatuta bizi den gizon bat ezagutuko dute: Mud. Itsasontzia konpontzeko laguntza eskatuko die gazteei, irlatik irten ahal izateko.

«Los pitufos 2»

6, domeka: 16:30



Zuzendaria: Raja Gosnell. AEB, 2013. 105 min. Marrazki bizidunak, komedia. Gargamel maltzurak pottokien kopiak egingo ditu: Los Malotes izena jarriko die, eta haien esentzia berreskuratuko du. Hala ere, konturatuko da benetako pottokiak behar dituela, eta bereziki, Pottokinak dakien sekretu bat behar du. Pottokina bahituko du.

A TZERA BEGIRA, AURRERA EGITEKO

euskaldunon iraganaz eta etorkizunaz

Urriak 9, asteazkena:

Baga, biga, higa hitzaldi-kontzertua,
euskal musikaren historia ezagutzeko.
Elgoibarko Musika Eskolako auditorioan, 19:00etan



Urriak 16, asteazkena:

**XXI. mendeko euskaldunak: nola aldatu(ko)
diren gauzak, kamarada!** hitzaldia
Elgoibarko Kultur Etxeko hitzaldi-gelan, 19:00etan
Hizlaria: Kike Amonarriz

Urriak 23, asteazkena:

Atzera begira, aurrera egiteko solasaldia
Elgoibarko Kultur Etxeko hitzaldi-gelan, 19:00etan
Hizlariak: Lorea Agirre eta Unai Iturriaga

Antolatzaileak:

ELGOIBARKO IZARRA 50i
KULTUR ELKARTEA



Babesleak:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euzko Lehen Mailako Futbol Federazioa



#SagardoEguna EIBARREN

antolatzaileak:



Euskara Elkartea

laguntzaileak:



Urriak 5, zapatua 12.00-14.30/19.00-amaitu arte

VITALDENT

Egin bakeak dentistarekin

Orain badakit
inoiz ez dela berandu
irribarre polit bat
edukitzeko

Ortodontzian
espezialistak



RPS 49/12

EIBAR
San Juan kalea, 7
943 82 18 85